

**EGUNEN  
AKABERA**

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitoezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru laguntza jaso du.*

*Egileak literatur sarkuntza sustatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako ailaren laguntza jaso du liburu hau idazteko.*

*1. argitalpena: 2024ko urria*

*Azalaren diseinua:*

Iván Landa

*Maketazioa:*

Erein

© Garazi Albizua

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-973-4




L. G.: D 856-2024

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

T 943 835 008

[itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

# **EGUNEN AKABERA**

**Garazi Albizua**

erein



*Egunen akaberan, bandera beltza izango da.  
Eta denok itxarongo dugu, itsasoan sartuta.*

BELTZANE PERTIKA



# I

## FAMILIA ARGAZKIA

Familiaren irudia burura ekartzen dudanean, ezinbestean, Serantes mendiarekin gogoratzen naiz. Ume batek margotutakoa nola, hiruki itxura du eta txikia da. Kolore berdea galdua, aspaldi; belarra urria eta gorotzez betea. Tontor txiki baten gainean, antena bat dauka. Zuhaitz gutxi batzuk ageri dira bidean; goialdean pinuak dira ugarietak.

2017. urtea da, iraila, gu guztiok gorantz goaz auto bakarrean, hots: gurasoak aurreko aldean eta beste bostok atzeko aldean. Kotxeak dabilta errepide trakets eta estu batean Santurtziko Mamariga auzotik gora. Ondoan dudana ahizparen gorputzarekin labaintzen zait besoa. Gogoko dudana nebaren gainean noa; bestea, nagusia, gure ezkerrean eseri da. Nebak kokotsa nire lepoan bermatuta darama. Haren arnasak berotzen dit masaila eta adurrak irrist egiten dit lepotik behera. Gorputza tenkatuta daukat, banpiroak letaginak noiz atera zain: artega.

Amama nire ahizparen aldamenean dago, sudur luzea leihatilan bermatuta. Superportuarekin txoratuta, itsasoari kendutako eremua damutuko zaigula oihukatzen digu. Araoa botatzen du, marmarrean, errepideko bihurguneek itsasoa erakusten dioten bakoitzean: *Damutuko zaigu, bai horixe!* Isilunea. *Zuenak egingo du!* Itsasoari min hori ematea ere! Isilunea. *Giza espezieak ez du bihotzik; poltsikoak, ordea, bete-beteta ditu!* Isilunea. *Zoazte guztiok infernura!* Isilunea.

Aitak gidatzen du. Ama ondoan, *umaka* erantzuten ditu amaginarrebaren kexak. Birramamaren etxera heltzear gara.

Birramama amilduta hil zen: bere buruaren barnean salto egin zuen hogeita zazpi urte zitueneko garaira eta giro ilun horretan ongietorria eman zion heriotzari. Batzuetan, heriotzak Julia izena zuen, bigarren pisuko auzokide argala: *A, espektro beltzaran zimela! Eraman nahi nauzu zurekin, bai, horixe!* Hartu ba, *ekarri eskua!* Goazen zure lorategi beltzera! Beste batzuetan, telebistako aurkezleren bat zen: *Barre egin, barre egin, bai!* *Damutuko zai-zu, berehala!* *Zatoz!* *Zeri itxaroten diozu?* *Badakit nire bila zabiltzala!* Eta azkenean, herioak berak bisita egin zion, 2017ko ekainaren 27an, arratsaldeko 18:13an, medikua-  
ren arabera.

Etxeak ere antzera egin zuen: denboran jauzi. Eta hala, urte batez, birramamari pastillak eman bagenizkion, zuriz margotu genituen etxeko hormak; birramamari



paseoan lagundu eta teilak aldatu teilatuari, birramamari begiak itxi eta etxeari hautsa kentzea ahaztu.

Joan daitezela biak ala biak pikutara.

Betiko.

Asteburuetan gurtzen genuen emakume ankerra. Kotxean sartu eta mendira igotzearena hilerrira bisita egitea bezalakoa zen, baina ateak izateagatik edota ganorazko hilotzi bat ez ordaintzeagatik, kanposantutik nahiko urrun, herritik, hots, itsaso-mailatik 270 metrora egiten genion omenaldia. Oilasko errea bazkaltzen genuen. Ahal zela, igandetan. Birramamari gustatzen zitzaion bezala. Oilaskoaren sabel eskas, itogarri eta lehorra legez aterpetzen gintuen birramamak sukalde zikinean; estu.

AMAMA: Pasa gatza.

AHIZPA: Ez, ez zaizu komeni.

AMA: Um.

AMAMA: Segituan hilko zarete guztiok!

AHIZPA: Medikuaren agindua da!

AMAMA: Itsasoari eremua kentzea ere!

NI: Tori, amama.

AMAMA: Eskerrik asko, maitea; halere, zu bebai mardarikatua zaude.

NI: Bai, amama, badakit.

AMA: Um.

AMAMA: Sartu pare bat baratxuri poltsikoan, badaezpada.

AHIZPA: Ez emateko gatzik!

AMAMA: Isil hadi!

AMA: Um.

NEBA BANPIROA: Pasako patata frijituak?

AHIZPA: Hartu zuk, badituzu pare bat esku, ezta?

AMA: Um.

Dekadentzia erromantikoa. Zikina, txiroa eta itsusia.

Ezinbestean, irudi hori ekartzen dut burura; gaur, ordea, 2022ko azaroan, familiaren argazkia bestelakoa da.

Birramamaren etxea guztiz erori zen bere hiletaren lehen urteurrenean; amama ere, bat-batean, siku. Nik birramama mizkinaren mamu agerpena ikusteari utzi nion; oster, ihesbide bat ezarri zuen nonbait zahar madarika-tuak: neba nagusiak, Iñakik, egun batetik bestera hanka egin zuen; azalpenik eman gabe. Ahizpak ere, Elenek, ihes, baina honek motiboak agerian utzi zizkigun: seme-alaba bi. Bikiak.

Bizitoki eskas batek girotzen du geratu ginenon estampa. Korridoreko logela, jolastoki; sukaldeko txokoa, amaren eremua; lobekin partekatutako logela, infernua bera; neba banpiroaren zuloa: iluntasun maitekorra; aitaren itzal lodia: egongelako jabea; ahizparen espiritua:

baldosetan kiribilduta; bainugela bat: ez da nahikoa; eta, hogeiren bat labezomorro.

Katurik ez, eskerrak.

Amaren besoek besoak izateari utzi zioten, aspaldi. Beti heze. Beti busti. Harrikoa egiten. Janaria prestatzen. Bilobak bainatzen. Haien muki eta malkoak lehortzen. Besoak bi apendiz labainkor dira, eta horrelakoa amaren ahotsa ere; hitz batetik bestera irrist egiten du, tonurik gabe, esanahirik gabe, melodia hutsa ateratzen zaio ez guztiz itxita ezta zabalik ere duen barrunbe horretatik. Beharbada, bilobak lokartzeko mantra bat da, familiaren beharretan ezer gutxi esaterik duena.

Emakume-olagarroa da.

Ez dut ama maite.

Ez dut erruki.

Ez dut gorroto.

Amak berdin dit, baina ezin aguanta ditzaket amaren *umak*.

Ahizparen espiritua momentu oro ari da izorratzen: *ez eman azukrerik! Ondo egin dute lo? Ama, ez jantzi bi-kiak arropa berdinarekin. Ez, ba! Berdin dio arrosa zein urdina nori jantzi, baina izan daitezela, zera... arrunt! Badakite ostiral arratsaldean helduko naizela, ezta? Ez, bideo deirik ez; pantailarik ez erakutsi! TELEBISTARIK EZ! Arren, izatekotan, ETB3 euskaraz, behintzat. Esan*

*Barraskilori* [hori ni naiz] *bilatzeko ganorazkoren bat. Ekarrri telefonoa: maite zaituztet, e? Ez ahaztu. Agur maite-  
txoak. Ama? Hor zaude? Parkera joango zarete? Koiperik ez!*  
*Jo, ama! Ahizpa-tornadoa.*

Asteburuetan, zurrunbilo bera da asperrarazten gaitue-  
na. Gasteizen partekatzen duen ikasle pisutik bisitan dator  
orduan. Ostiraletik igandera, beraz, korridoreko logelan,  
plastikozko jostailuz inguratuta lo egin behar dut, holako  
umezaroko erregresio psikodeliko batean endredatuta.

Neba banpiroa, otaku interesgarria: normalean, oi-  
nordetzan jasotako gelan giltzapetuta egoten da. Sarri  
babesten naiz haren santutegi madarikatuan. Gauetan  
izan ezik. Momentu horretan, debekua erabatekoa da.  
Suposatzen dut intimitate sexual erotikorako abagunea  
izorratzerik ez duela nahi izango. Lasai, Otakito! Ez dut  
amesgaiztoen bilduma oparoa luzatu nahi. *Merci.*

Ezin diot Otakito esan. Hori ere debekatu egin dit.

*Naruto, One piece, Tokio goul eta Monster* mangan  
bildumekin estali ditu hormen urradurak eta ahizparen  
poster zaharrak: Angela Davisen aurpegia Narutok zehar-  
katzen du, baita Oskorri taldearena ere, motor eta guzti.  
Bestearena, aspaldi desagertutako neba zaharraren aztar-  
narik ez dut sekula topatu.

Ez dira egon.

Erreal da? Haragizkoa? Gurekin bizi izan da noiz-  
bait? *Bizi.* Zonbia izan zitekeen, garun bila etxetik ihes  
egitera derrigortua. Batek daki.

Otakitok ile beltz luzea motots batean kiribilduta darama, kopeta-ileak ezti koloreko begiak estaltzen dizkio, eta ezpainak etengabeko irri ironikoan zizelkatuta ditu, barrunbe gris honek barrea eragingo balio bezala. Ez dago burutik sano. Azkarra, arraroa, iluna eta dibertigarria da. Prototipoa: banpiroa.

Lobak ezin bereziagoak dira. *Brave* filmeko hirukiak nola, ez dira minutu bakar batean geldirik egoten. Boteretsuak dira, apetatsuak eta likatsuak. Eta ilegorriak. Umeak, finean.

Umeak gorrotatzen ditut. Eta lobak, izugarri maite.

Gauero, baita euren ama dagoenean ere, eskatzen didate ipuina kontatzea. Haiek dira beti protagonista bihurriak. Traketsak. Maltzurak. Gaiztoak. Ilunak. Espioiak. Munstroak. Beldurgarriak. Istorioa entzun eta barrez lehertzen dira. Ez dakit zergatik, ordea.

Aita gauez dator.

Neu, barraskilo: desatsegina naiz. Hori diote, behintzat. Akaso, irudimen handiegia dudanez dibertigarria izan nintekeen, baina beti omen nago haserre. Beraz, hori ere ez. Astiro mugitzen naiz eta motxila zahar bat eraman ohi dut bizkarrean. Gainera, gezurti hutsa naiz, ezin zara nirekin fida.

Lodia naiz.

Ez zait gustatzen gure etxe ziztrina.

Ez ditut aguantatzen gurasoak.  
Eta amamarik ez dago jada.  
Gogoko nuen. Maite nuen. Izugarri.

## II

### ETXE-SENA

—Barradskilo, ipuina! —exijitu dit Manexek, bikien artean hitzontziena.

Arratsaldeko 20:30ak dira, afaldu eta pijama jantzi ostean, ipuinaren orduak deitu ditu bi basailuak. Ezinezkoa zaie hitzorduari muzin egitea. Etxean baditugu zenbait arau, pentsamendu zein isilpeko agindu; bete beharreko kontuak dira, gauzak diren moduan izaten jarraitzeko. Ohitura ez urratzeko. Hots, bizitzari berari segundo bate-tik bestera, oztopo deigarririk gabe igarotzen laguntzeko.

Ez da broma, jaso ditut datuak:

- 2020ko apirilaren 14an, itxialdian, gosaltzeko betiko Cornflakesak hartu beharrean, txokolatzeko galletak hartu nituen: osaba Xanti hil zen.
- 2020ko maiatzaren 28an, urteetan zehar iraun zuen bazko lorea ordua baino hogeita hamar

minutu lehenago ureztatu nuen: Ahizpa-tornadok kotxe istripu bat izan zuen. (Ezer larririk ez, baina seguru merkeegia izateagatik, matxura ezin pagatu eta kotxerik gabe geratu zen).

- Aurreko astean, igandetako garbiketa sakona astelehenerako utzi eta: aita lantegitik kaleratu zuten. Batek daki zertan ematen duen denbora etxetik kanpo orain. Lan bila dabil. Lan bila. Lan bila. Laaaaaannnn biiiiiiiila. Hainbestetan entzun eta errepikatu ditut hitzok. Ezin ditu berak erosketak egin, *lan bila joan da*. Ezin ditu bikiak eskolan jaso, *lan bila joan da*. Ezin zaitu medikuarenera eraman, *lan bila joan da*. Beldurgarria.

Modu batean zein bestean, gure desioen gaineratik, erabakien gaineratik edota istripuen gaineratik dago etxearen nortasuna, arautegia. Sena. Eta kasu egin behar diogu.

—Goadzen! —zazeatu du Manexek, bizkarra emanez. Eta gure gelan sartu da, zulo itogarri berde pastelean (naturaren kolore eta bizipoza eman nahi izan zion ahizpak gelari).

*E, e, e, berde hori ez ipini, nire gela ere bada! Isildu, Barraskilo; eta hasi margotzen, hartu brotxa! Ezetz! Berde hori gogaikarria dela! Paso! Kimetz, lagunduko didazu zuk? Ba ez dakit, nahiko kolore itsusia da, ezta? NA-TU-RA. Izadia. Leku atsegina. Hori ipintzen du potoan! Utzi zuria! Ez ba, hotzegia da umeentzat! Ez naiz umea, eta*



*nire logela ere bada! Ez, Barraskilo, hau logela partekatu bat da. Horrek esan nahiko du nirea ERE badela! Horregatik, bada, hartu ditxosozko brotxa eta hasi margotzen. Ez dizudala lagunduko! Damutuko zara, haurdun bati laguntza ukatzea ere! Hori kolpe baxua da, Elene! Eta total, madarikatuak gaude denok, beraz... A! Jasanezina zara! Tira, Kimetz, lagundu zuk, behintzat! Baaale, baina ez zegoen beste kolorerik, nahiko berde, zera, berde-muki, berde-gaixotasun modukoa da, ezta? Ospitale usaina ere badu, ez?*

*Aitak ekarri du.*

Berdea, beraz.

Logelako atearen parean leiho txiki bat dago, horren azpian, lurrean botata, nire koltxoia. Eskumako hormaren kontra, bikien ohetxoak daude, bata bestearen ondoan, eta ezkerreko horman, armairu marroi ilun zahar handi bat, pegatinaz josita. Jostailuek, arropak, paperek, margoek eta abarrek estaltzen dituzte baldosak.

Ametsek eskutik tira egin dit eta bere nebari barrurantz jarraitzeko agindu. Behin zuloan, eta playmobil bi zapaldu ostean, koltxoian eseri naiz. Bizkarra hormaren kontra bermatu eta kuxina besarkatu dut. Bikiek euren oheetan hartu dute lekua, adi, kontakizuna noiz hasiko zain. Haien arreta pisutsua nabari dezaket bizkarrezurretik barrena. Ez da eroso.

—Bazen behin tximeleta beltz bat... —kontatzen hasi naiz.

—Hodi edz! –moztu dit Manexek.

Amets ere haserretu zait. Ez du hitzik esan, baina berezkoa duen begirada are gehiago ilundu zaio.

Eskolan, beldurtuta ditu gelakide guztiak. Esango nuke irakasleren batek ere distantzia ederra markatzen duela beraren eta hontza itxurako neska mozkotearen artean.

—Tximeleta laranja bat, adibidez? Kolore askotari-koia nahiago? –galdetu diet, inuzente planta eginez.

—Mamuadena, kontxo! –erantzun dit Manexek, mutil-hontz ilegorriak.

—Ez esan «kontxo» –esan dio Ametsek doinu neutro batean.

—Badka, Mets! Baie ez dzu ipuina kontatzen!

Igual-igualak dira, hegazti harrapakariaren antza ezin dute disimulatu. Askotan pentsatu dut Ahizpa-tornadok larrutan egin zuela holako pertsona/hegazti/kabroi ilegorri batekin, eta horren emaitza zuzena direla nire loba madarikatu bezain gozo hauek. Ahizpak sekula ez du esan nor den esperma emailea.

Arnasa hartu eta botatzen dut ahal dudan luzeen. Lau aldiz; Manexek haserrea gainditzeko beharrezkoa duen tarteak kalkulatu dut.

Arnasa hartu: *Edz ezan nahita egiten edz duenik!*

Arnasa bota: *Mamua dator bidzitan ta predzt egon behar gara!*

Arnasa hartu: *Dzergatik adzaldu behar diogu beeeeti?*

Arnasa bota: *Edz begiratu hola, kontxo!*

Arnasa hartu: *Bihar edz dut edzango «kontxo», bale?*

Arnasa bota: *Mamuadena! Mamuadena! Benga, Barradzkilo, hadzi!*

Arnasa hartu: *Hadzi ya, behingodz! Kontxo! Barka, Metz.*

Arnasa bota.

Egiari zor, hasieratik konta niezaiekeen ditxosozko ipuina, baina beldurra ematen dit, nahi gabe, beste norma bat ez ote diedan sortu. Gainera, guztiz obsesionatuta daude mamuaren istorioarekin.

—Mamua gaur etorriko da —hasi naiz ohiko ipuinari sarrera emanaz.

—Hemen dago, jada. —Ametsen doinu gabeko ahotsa.

Ouija saio bat ematen du gaueko errituak. Magia zahar ustel batek biltzen du gure familia. Berdin dio lau urteko bikia izan, edo hirurogeita bederatzi urteko ama: gu guztiok itotzen gaitu etxe-senak. Eskuak begiratzen ditut, Ametsi eta Manexi ere begiratzen dizkiet, baita Otakitori ere. Berdinak dira, berdin-berdinak: berandu barik, amaren garroak bilakatuko dira. Beti busti, beti heze, beti lanerako prest egongo diren eranskin sotil bi. Biba lana.

—Ba ez dakit nik jada heldu den! Kontua da... —saia-tu naiz istorioari heltzen, barne tristura uxatzen.

—Metsek bazdio, hamen dzau —argitu du Manexek. Gero nire atzealdeko leihoari begiratu, begiak zabaldu harriduraz eta—: dzure atzean dago! —oihukatu dit.

Jasanezinak dira.

—Ondo da! Mamua hemen da eta gu zelatatzen ari da! Gu lokartu arte eta esnatu bitartean erne egongo da. —Begiak asko ireki ditut—. Izan ere, mamu hau ez da mamu arrunta, gure familiako oinordeko berezia da!

Asmatu dut senide adoretzu bat. Aspaldiko izeko bat, pirata. Urkatuta hil zuten, madarikatu zuten eta horregatik ezin izan du atsedetik hartu. Sekula ez. Baina hase-rretu eta gaiztotu beharrean, adostu zuen familia babes-tea bera bezalako mamu eta munstro maltzurrengandik. Ametsen zaindari moduko bat da, izan ere, lo gaudenean, babesgabe gaude espektro beldurgarrien aurrean. Esna gaudenean etortzekotan, guk jipoituko ditugu.

Hori da ipuina.

Akaso, lokartzeko ez da kontakizunik aproposena. Beharbada, ez. Funtzionatzen du, ordea.

—Dzaindadia etoddi da! —pozik, Manexek.

—Zaindaria etorri da —Ametsek.

Begirada leihoko kristalezko puntu horretan josi dute. Baiezkoa egin diote buruarekin hor ikusten dute-nari; eta, eskuarekin agurtu dute: ongietorria eman diote gaueko espektroari.

Jarraitu dut ipuina kontatzen, azaldu diet zergatik den garrantzitsua holako mamu bat familian izatea, eta gogorarazi diet amets onak opa dizkigula. Nahiz eta munstro berde eta azalgabeko izaki izugarria izan, jatorra da eta maite gaitu.

Ez gara itxuraz fidatu behar.

Begiak itxi zaizkie, batera.

Logelatik atera aurretik, Ametsek eskua luzatu eta pijamatik tira egin dit. Begiak itxita hitz egin du:

—Barraskilo, kontuz, otsoa ere badago. Mamuak ezin du irabazi.

—Mamuak ahalko du, handia da, garaia, erraldoia!

—Ez, ezingo du. Tamainak ez du axola.

Ondoren, guztiz lokartu da. Dira. Behingoz.

Biki hontz ilegorri beldurgarrien loa babestu nahian, oin puntetan atera naiz eta kontu handiz itxi dut atea.

Sukaldean, Otakito eta Olagarro afaltzen ari dira. Ez didate itxaron, baina plater bat dut zain mahai gainean: hauts-zopa.

—Labean pizza duzu, hiru zati –Otakitok.

—Um –amak.

Isilik afaldu dugu, bakoitza bere pentsamenduetan sartuta. Nolakoak izango dira nebarenak? Pentsatuko du manga marrazki bat dela, pirata bat, ninja bat, klan bateko *hokagea*? Bildumetako neska titi erraldoidunekin izango ditu sexu fantasiak? Eta Olagarrok? Badu ezer desiratzeko grina, sikiera?

Afaldu, batu eta oheratu naiz. Otakito amarekin geratu da apur batean, batek daki zertaz berba egiten.

Ez diot aitari etortzen entzun. Ez diogu pizza zatirik utzi. Berak haragi egosia du. Ama geratu da lapikoa zaintzen; egurrezko koilararekin haragiari eta patatei eraginez.

Momenturen batean, helduko zen aita, mahaian lekua hartu eta platerkada haragi bata bestearen atzean jango zuen. Lapiko osoa, guztiz hustu arte.

Ase arte.